

artikulu nabarmenak  
artículos destacados



Gazteen  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Juventud

## ekaina / junio



CARUANA VAÑO, Agustín: [Inteligencia emocional y dificultades de aprendizaje](#). *Revista digital de la Asociación CONVIVES*, apirila 2014, 6 zenb., 34-51 or. Ikasteko motibaziorik eza norbanakoaren izaerak eragindako ikasteko zailtasunetako bat da, autokontrolak eta jarraitutasunak baldintzatutakoa hain zuzen; dena den, ikuspegi afektiboaren bitartez hezterik bada. Emozio-ahalmenak eta gaitasun akademikoak burmuinean daude. Neurodidaktikak burmuinak ikasteko moduak diseinatzen laguntzen du; izan ere, motibazioa, arreta eta kontzentrazioa suspertzen dituen alde emozionala izan bada gure buruan. Eta hezkuntza emozionala giltzarri da pertsonak hezteko, are ikasteko zailtasunak dituzten pertsonak badira



UCEDA-MAZA, Francesc-Xavier, Jose-Javier NAVARRO-PÉREZ y José-Vicente PÉREZ-CÓSÍN. [El ocio constructivo como estrategia para la integración de adolescentes en conflicto con la ley](#). *Postularía*, XIV libk., 1 zenb., 49-57 or.

Aisia ezinbestekoa da nerabeen gizarteratzerako. Gizarte postindustrialetan gizarte- eta hezkuntza-arloko erakunde publikoen esku-hartzea mugatua da. Nolanahi den ere, politika horiek abian jartzeak nerabeak gizarte-egitura orekatu baten barruan kokatzen lagundu dezakete kalean aisia emateko programen bidetik. Horrela aisialdia errutina eta arriskuetatik urruntzeko modua lantzen ari gara



BENEDICTO, Jorge y MORÁN; María Luz. ¿Otra clase de politización? [Representación de la vida colectiva y procesos de implicación cívica de los jóvenes en situación de desventaja](#). *Revista Internacional de Sociología*, 72 libk., 2 zenb., maiatza-abuztua 2014, 429-542 or.

Hainbat faktorek eraginda (gizarte-egiturazkoak, norbanakoarenak, erakunde-zkoak) frustrazio-sentimenduek eta gizarte-bizitzan parte hartzeko ezintasunak desabantailan dauden gazteei eragiten diete. Horrek gazteen gizarteratzea zailtzen du, eta gizartearen mugetan bizi direlako sentipena sortu. Gizarteak ez ditu gazte hauen mezu eta diskurtsoak entzuten, mezu arazotsuak batzuetan, parte hartzea bultzatzen dutenak beste batzuetan, eta inoiz ere etsiak. Hala ere, herritar sentitzen eta nork bere autonomia eratzten lagunduko dien talde eta elkarteetan parte hartzearen bitartez hastapeneko politizazioaren zantzuak agertzen dira, nahiz eta eragin gutxikoak izan

PERTSONA  
HELBURU

COMPROMISO CON  
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA  
KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA